

Azken lau urteko energia-ikuskaritzak Taldearen **energia gastua % 18 murriztu** dela erakusten du

Kutxabankek % 85 murriztu du urteroko berotegi-efektuko gasen sorrera

- **Elektrizitate berde zertifikatuz soilik hornitzen da, karbono gutxiko ekonomia sustatzeko konpromisoaren funtsezko alderdietako bat**
- **Bere sukurtsalen eta datuak tratatzeko zentroyen energia-eraginkortasuna hobetu du, berokuntzan eta klimatizazioan neurri zorrotzagoak ezartzeaz gain**
- **Teknologia digitalari esker, korrespondentziako paperen erabilera nabarmen murriztu da, urtean 1,2 milioi bidalketa gutxiago eginik**

2022ko apirilaren 11an. Kutxabankek **ekoizpen iraunkorra** bermatzen, **klimaldaketaren aurka** borrokatzen edo **ingurumena errespetatzen duen garapen** ekonomikoa sustatzen laguntzen duten ekimenak bateratzen ditu bere kudeaketan, beti ere gobernu oneko posizioetatik.

Jarrera proaktiboa du ingurumena babesteko, kutsadura eta ingurumenaren narriadurari aurre egiteko. Urteak daramatza finantza-jarduerarako beharrezkoa den energia eta material kontsumoa gutxitzen, sortzen diren hondakinak arduraz kudeatuta.

Erakundeak bere instalazio guztietan egin duen azken **lau urteko energia ikuskaritzak** ondorio esanguratsuak ondorioztatu ditu, bere jasangarritasun politikatik **datu positiboak** eman baititu, hala nola energia-gastuaren **% 18ko murrizketa**.

Beste eragin aipagarri bat bere jarduerak sortutako **berotegi-efektuko gasen intentsitatearen** murrizketan ikusten da, 2019az geroztik **% 85** gutxitu baita, hau da, urtero guztira **6.750,5** tona gutxiago isurtzen ditu atmosferara.

Hobekuntza horretan funtsezko faktorea energia berdez hornitzea izan da. Gogoratu behar da Kutxabank Taldearen instalazio eta bulego guztiek **elektrizitate berdea eta zertifikatua soilik** kontsumitzen dutela.

Era berean, Erakundeko lan-zentroetan **eraginkortasuna eta energia-kontsumoa murriztearen** alde egin duten beste neurri batzuk ezarri ditu Kutxabankek, klimatizazio eta aireztatze neurri eraginkorragoak ezarriz.

Honela, hainbat eraikinetan **erreformak** egin dira, zenbait zentrotako **klimatizazio- ekipamendua** berritu, eta CPD datuak tratatzeko hiru instalazioetako **hozte- eta hornidura elektriko- ekipamenduak** egokitu dira.

Gaur egun Kutxabank bere bulego-sareko eraikinen automatizazio-proiektu global bat ezartzen ari da, eraikin zentraletan frogatu ostean, argiztapena eta energiaren kontsumoko sistemak urruneko sistema baten bidez kudeatu ahal izateko.

Kutxabankeek sortzen dituen isuri zuzenen bolumena oso altua ez den arren, Taldeak kudeatzen dituen baso-sailek eroso konpentsatzen ditu, urtero **13.000 tona CO2** xurgatzen baitituzte zuhaitzok.

Kutxabankeek guztira **900 hektareako baso** kudeatzen ditu, biodibertsitatean aberatsak diren ekosistema ugariarekin. Bere ustiapenerako, Baso Kudeaketarako Plan bat dauka PEFC Ziurtagiriaren pean, Baso Kudeaketa Iraunkorra bermatzen duena.

Digitalizazioa, jasangarritasunerako lagungarria

Kutxabankeek 2019an hiru urteko plana jarri zuen abian informazio teknologia berriei esker, paperaren erabilera murrizteko eta inprimatutako korrespondentziaren bidalketa murrizteko, korrespondentzia elektronikoarekin ordezkatuz.

Neurri hauei esker, urtean paper-kontsumoa **milioi bat orrialdetan eta 1,2 milioi paperezko gutun-azaletan** gutxitzea lortu da.

Bankuak bere bezeroetan eta ingurumenean eragin positiboa duten neurrien alde egiten jarraitzea aurreikusten du, sareko sistemekin **dokumentazioa trukatzeko** erraztuz, zenbait kontratu **urruneko sinadura** egin baitaitezke, sukurtsaletara **bidaiatu beharrik gabe**.

Kutxabankeek ingurumen-politika instituzional oso aktiboa du, eta Ingurumen Jardunbide Egokien Gida bat du, Kutxabanken lan egiten duten pertsona guztien ingurumenarekiko sentsibilizatzea hobetzeko.

Gida honek ingurumenaren gaineko inpaktua murrizten duten neurriak sustatzen ditu, energia-eraginkortasunaren, bereizketaren eta hondakinen kudeaketaren bidez, edo baliabideen eta materialen erabilera txikituz, besteak beste.

Emisio gutxiko ekonomia baterako trantsizioan ere zeregin nabarmena du Erakundeak, ingurumenean eragin positiboa duten proiektuei finantzaketa ematen baitie, iraunkortasun-irizpideak biltzen dituen kreditu-sailkapen baten bidez.

Kutxabankek **naturarekiko errespetua sustatzen duen finantza produktuen katalogo zabala** du. Honela, energiaren ikuspegitik eraginkorrak diren etxebizitzak eskuratzea eta aseguruak, ibilgailu elektriko eta hibridoak edo etxetresna elektrikoak erostea errazten du, eta enpresei ekonomia jasangarriago baterako bidean laguntza finantzarioa ematen die. Halaber, energia berriztagarriak sortzeko proiektuak garatzen dituzten enpresa-proiektuak babesten ditu.
